

ATE IREKIEN JARDUNALDIA ZUZENDARITZA 2019ko MARTXOaren 12a

2019ko MARTXOaren 12an Musikenek Ate Irekien jardunaldia antolatuko du zuzendaritza espezialitatean. Bertan parte hartuko dute Gabriel Baltés eta Arturo Tamayo irakasleek eta Musikeneko zuzendaritza ikasleek.

Nori zuzenduak?

Musikenen goi-mailako ikasketak egiteko interesa duten zuzendaritza ikasleei. Beren familiakoak, lagunak edo irakasleak ere etor daitezke.

Bi motatako ikasleak egongo dira:

Aktiboak: Musikenen goi-mailako ikasketak egin nahi dituzten ikasleak.

Entzuleak: jardunaldi hauetara etortzeko interesa duen edonor.

Jardunaldian parte hartzeko aurrez erreserba egin beharko da gure webgunea eskura duzuen **izen-emate orriaren** bitartez

Jardunaldiaren helburua

- Espezialitatearen irakaskuntzaren berezitasunak azaltzea.
- Espezialitateko irakasleekin lehen kontaktua izatea.
- Sarrera-proben edukia eta ikastegiaren aukerak zehaztea.
- Etortzen direnen eta etorkizuneko ikasleen beharrei eta zalantzei erantzutea.
- Musikenen ikasteak dituen abantailak, zehaztasunak eta kalitateak azaltzea.
- Ikastegia kanpoko begiradei zabaltzea.

Lan-egitasmoa

9.30-10.30: Ate Irekien jardunaldiaren aurkezpena.

Zuzendaritza espezialitateko ikasketa-planari buruzko informazioa, osatzen duten irakasgaiak eta irakasleak aurkeztea. Sarrera-probak, ikasketa amaierako azterketak, eskola eta eskola kanpoko jarduerak, Erasmus eta ikastegiaren ekipamenduaren inguruko azalpenak. Eraikinari bisita gidatua.

10.30-12.00 Koru zuzendaritza eskola praktikoari bisita.

Entzule modura Basilio Astúlez irakaslearen zuzendaritza eskola bat ikustea, zuzendaritza ikasleen entsegu eta prestakuntza lana ikusi ahal izango dutelarik. Ikasleei aktiboei koru pilotua denbora labur batez zuzentzeko aukera emango zaie, irakasleak aholkuak eman edo iradokizun laburrak egin ahal izateko.

12.00-13.30: Orkestra zuzendaritza eskola praktikoari bisita.

Entzule modura Arturo Tamayo irakaslearen zuzendaritza eskola bat ikustea, zuzendaritza ikasleen entsegu eta prestakuntza lana ikusi ahal izango dutelarik. Ikasleei aktiboei orkestra pilotua denbora labur batez zuzentzeko aukera emango zaie, irakasleak aholkuak eman edo iradokizun laburrak egin ahal izateko.

Etenaldia

14.30-15.30: Basilio Astúlez irakasleekin elkarrizketa.

Elkarrizketa hauen helburua zalantzak argitzea, aholku pertsonalak ematea eta irakaslearekin kontaktu zuzena izatea da.

13.00-13.30: Arturo Tamayo irakasleekin elkarrizketa.

Elkarrizketa hauen helburua zalantzak argitzea, aholku pertsonalak ematea eta irakaslearekin kontaktu zuzena izatea da.

16.00: Agurra eta Ate Irekien jardunaldiaren amaiera.

Non

MUSIKENE Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegia

Europa plaza, 2.

20018 Donostia-San Sebastián

Kontakturako telefonoa: 00 34 943.023.750

E-maila: info@musikene.eus

Mapan ikusi nahi baduzu: <https://goo.gl/maps/jtNTDighrRG2>

Informazio gehiago behar baduzu harremanetan jarri Konposizio, Analisi, Zuzendaritza eta Teknologien Dapratmentuko Buruarekin: Zuriñe Gerenabarrena zgerenabarrena@musikene.eus